

UPV/EHUK, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2012-2013) –**1.4 puntu: Gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea**– eta otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 33.2 artikulua – Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek “(...), jakintza arlo guztietako irakaslanean eta ikerketa-lanetan genero ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta **emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako ekarpen sozial eta historikoa jaso dadin** bermatuko dute”– betetzeaz baliatuz, jatorriz edo adopzioz euskaldunak izan ziren eta beren lanbideetan aitzindariak izan ziren emakumeen izenak eta ekarpenak berreskuratu nahi ditu. Lehenengo izena María Goyri da; Algortan jaio zen 1874an, baina gazterik joan zen Madrilera.

Pertsona egokia da zerrendaren buru izateko, emakumeen berdintasunaren alde (*Revista Popular* aldizkarian “Crónicas femeninas” izeneko atala zeukan) eta euskal kulturaren alde (“Aplicación del modelo romancero de análisis a la balada vasca: bereterretxen khantoria”) egin zituen lanengatik.

María Goyri (1874-1955)



“Talentu, kultura eta energia handiko pertsona da, eta bere senarra eta seme-alabak galbideratu ditu; oso limurtzailea da, Espainiako pertsonarik arriskutsuenetakoa. Zalantzarik gabe, iraultzaren sustrairik sendoenetakoa da”.

(Segoviatik Defentsa Nazionaleko Batzordeari bidalitako txostena, 1937-1938)

16 urterekin Filosofia eta Letren Fakultatean ikasten hasi zen (1891/1892 ikasturtea) entzule gisa, matrikulatu gabe, eta Sustapen Ministerioari matrikula bat irekitzeko baimena eskatu zion. Ondorengo urterako matrikulatzeko baimena eman zitzaion, baina korridoreetan ez egoteko, ikasgelara katedradunarekin batera sartzeko eta ikasgelan gainerako ikasleekin eseri beharrear, irakaslearen ondoko aulki batean esertzeko baldintzarekin. Filosofia eta Letretako lizentzia lortu zuen lehenengo emakumea izan zen, 1896an, eta doktoregoa 1909an lortu zuen, *El Conde Lucanor* liburuari buruzko tesi batekin.

Haren iloba María Teresa Leónen arabera: “María Goyri bere lehenengo eskola emateko unibertsitateko atean agertzerako, atezain bat zeukan zain. Ikasleen harridurarako, irakasleen gelara eraman zuen. Han, Filosofia eta Letretako dekanoa hurbildu zitzaion modu zeremoniatsuan: ‘Andereño, hemen geratuko zara eskola-ordua iritsi arte. Ni etorriko naiz zure bila’. Atea giltzaz itxi zuen eta haren egitekoak betetzera joan zen. Txirrinak jotzean, irakaslea itzuli zen, atea ireki, eta besoa eskaini zion. Astiro joanarazi zion bi ikasle-lerroren erditik; ikasleak harrituta eta ironiko geratu ziren eta beren unibertsitatean sexu berdintasuna ezustean sartu zela ikusi zuten”.

1982an, Madrilgo Ateneo aretoan, hain zuzen Biltzar Pedagogiko Hispano-Portuges-Amerikarrean, Concepción Arenalek emakumeen heziketari buruzko hitzaldia eman zuen, eta bi eskaera egin zituen: prestakuntza intelektuala eta gorputz hezkuntza. Carmen Rojo Maistren Eskola Normaleko zuzendaria gorputz hezkuntza aldarrikatzearen guztiz aurka agertu zen, eta biltzarreko parte-hartzaileen artean eztabaida gogorra piztu zen, Mariak gorputz hezkuntzaren alde hitz egin zuen arte, bere bizitzako esperientzian oinarrituta. Haurra zenetik ariketa fisikoa egin behar izan zuen, amak bultzatuta, jatorri tuberkulosoko artritis bati aurre egiteko.

MASTER AMAIERAKO LANETAN GENERO IKUSPEGIA BARNE HARTZEAREN *MARÍA GOYRI SARIAREN* I. EDIZIOAREN DEIALDIA –2011/2012 ikasturtea–

1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

UPV/EHUko emakume eta gizonen I. Berdintasunerako Planaren (2010-2013) 1.4 puntuan aurreikusitako ekintza betez, “gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea”, alegia, UPV/EHUK *MARÍA GOYRI* saria sortu du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horiekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

Aurkeztu diren lanen kalitateak hala eskatuz gero, saria partekatu egin ahal izango da.

Eta, UPV/EHUren eleaniztasun politika eta jakintza adar desberdinak daudela (Arteak eta Humanitateak; Zientzia Esperimentalak; Osasun Zientziak; Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak; eta Ingeniaritza eta Arkitektura) kontuan hartuta, 6 accesit ere eman ahal izango dira, beren kalitatearengatik epaimahaiaren iritziz halako aipamena merezi duten lanentzat.

Saria ohorezkoa da soilik.

2. ESKAERAK FORMALIZATZEA, ENTREGATZEA ETA EPEAK

UPV/EHUko Master ofizial bakoitzeko Batzorde Akademikoak aukeratuko ditu sarira aurkeztuko dituen lanak. Lanek 2011-2012 ikasturtean defendatutakoak izan behar dute eta gutxienez bikaina lortu behar izan dute. Batzorde bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz. Beste hizkuntza batzuetan jarduten duten masterrek hizkuntza horietan defendaturiko beste lan bat aurkeztu ahal izango dute.

Deialdian parte hartzeko, Batzorde Akademikoak deialdi honi erantsitako eskabide orria aurkeztu beharko du.

Aurkeztutako lanak, egilearen izenik gabe, posta elektronikoz bidali behar dira, pdf formatuan, berdintasuna@ehu.es helbidera, edukiaren laburpen batekin (500 hitz gehienez).

Eskaerak aurkezteko epea 2012ko urriaren 30ean amaituko da.

Eskaerak Erregistro Orokorraren edozein bulegotan aurkeztuko dira, Berdintasunerako Zuzendaritzari zuzenduta (Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza, Sarriena auzoa zk.g., 48940 Leioa).

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe baldin badago edo zuzendu daitezkeen akatsak baldin badaude, saria eskatu duen Masterreko Batzorde Akademikoari 10 egun balioduneko gehienezko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo dela zuzenean.

Deialdi honetako epaimahaiak deialdia ebazteko egoki iritzitako informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

3. PROZEDURA, EPAIMAHAIA ETA EBAZPENA

Epaimahaia UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordeko bost irakasle eta ikertzailek osatuko dute. Haietakoren batek lanaren egilearekin lotura akademiko edo familiarren bat izango balu, baztertu egingo litzateke, eta Berdintasunerako Batzordeak jakintza adar bereko beste pertsona bat izendatuko luke.

Epaimahaiak iritzia eskatu ahal izango die aparteko profesional, ikertzaile edo adituei.

Sariak emateko, lanen balioespina honako hauen arabera egingo da:

- Gaiaren eta ekarpenen garrantzia eta originaltasuna
- Lanaren kalitatea eta gauzatzeko zailtasuna
- UPV/EHUren I. Berdintasunerako Planaren printzipioekiko koherentzia

Epaimahaiak 2013ko otsailaren 15a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza, <http://www.berdintasuna.ehu.es> web orrialdean, honako hauen berri emanez: pertsona irabazlearen izena, zein masterretakoa den, tutorearen izena eta saritutako lanaren edo lanen laburpena.

Saria eta accesitak, baldin badaude, 2013ko martxoaren 8ko ekitaldi akademikoan banatuko dira, Bizkaiko Campuseko Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

Sarian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Leioan, 2012ko irailaren 3an

Amaia Maseda García

UPV/EHUko Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordea